

Berrigara



Paristik

la 500 neska-mutikok dihardu Musika Eskolan

datoreen...

Astra

**Aire girotua
duen Opel Astra
1.960.000 pezetan ***



- Opel Astrak, serieko ekipamenduarekin, denetarik dauka: •ABS sistema•Aurreko aire poltsak
•Alboetako aire poltsak•Direkzio lagundua•Kristal-igogailu elektrikoa aurrealdean•Ateen itxidura zentralizatu
urrun-managailuarekin•Bolante erregulagarria•Autoa ez lapurtzeko sistema elektronikoa
•Orain, aire girotu eta guzti, 1.960.000 pezetatik aurrera

*11.70 €. P.V.P. Fabrikatzaileak gomendatutako salneurria penintsulan eta Balear Uharteetan. Opel Astra 1.6 Club, 3 ate. Hau guztia barne: promozioa, BEZ, matrikulazio zerga, garraioa eta Prever Plana berundun gasolina autoetan. Hil bukaera arteko promozioa.

OPEL

TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g. Telefonoak: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:

TAKOLO AUTOAK, S.L.

HELBIDE BERRIA: San Andres auzoa 10-D. Telefonoa: 943 79 05 86.



Zinema eta publizitatea

Antonio Zabala / Kazetaria

Nola aldatzen diren gauzak ordu batzuetan. *El bola* filma larunbatera arte ia-ia ezezaguna zen: kritika onak izan arren, oso ikusle gutxi izan du filmak (kopia gutxi atera zuten, eta beraz, denbora gutxian zinema mundutik pasatu da zaratarik egin gabe eta ikuslearen arretarik lortu gabe). Baina, "Tatxan!", larunbatean Goya sarrietan film irabazlea izan zen, eta bada-kizue horrek zer dakarren: telebistan minutu batzuk agertzeak milioika ikusleren aurrean ezagun bihurtzen zaitu. Hurrengo egunean telediaro, irratia eta egunkari guztietan agertzeak eta gure gizarte lehiatsuan irabazle azaltzeak ematen dizuten statusa kontuan harturik, beldur gabe esan dezakegu *El bola*-ri loteria tokatu zaiola. Ziur naiz gaur bertan (begiratu egunkaria nahi baduzue) hirietako zinemetan berriz egongo dela eta filmak jasoko duen diru kopuruak gorantz egingo duela. Hori bai, neurri murriztu batean, Goyak ez dira Oscarrak...

Horrela dira gauzak, jendeak zinemara joateko bultzakada bat behar du eta bultzakada hori, kasu gehienetan

(badago ahoz ahoko metodoa ere), publizitatearen bitartez lortzen da. Eta publizitatea aipatzen dudanean, ez dira bakarrik ordaindutako iragarkiak, bada-go beste publizitate mota bat informazio moduan agertzen dena: egunkarietako *dominicalak*, telebistetako magazinak, gaueko programak... Eta honen adibidea hemendik aste gutxira izango dugu: laster Santiago Segurak *Torrente 2* estreinatuko du, beraz, ikusiko duzue nola konponduko den toki eta saio guztietan bere filma saltzen agertzeko.

«Publizitatea ez dira ordaindutako iragarkiak bakarrik, beste publizitate mota bat informazio moduan agertzen dena da: egunkarietako *dominicalak*, telebistetako magazinak, gaueko programak...»

Film batek gertakizun statusa lortzen duen momentuan, ia-ia derrigorrez ikusi behar den film bihurtzen denean, bere arrakasta lortua du. Hone tan amerikarrak maisu ditugu: moldatzen dira onak eta txarrak diren pelikula saltzen. Beste adibide bat: nor ez ditu ikusi George Lucasen *La amenaza fantasma* edo *Gladiator* filmak? Eta horrenbesterao dira? Niretzat *Gladiator* spaguetti-peplum generoan sar dezakegun filma da (peplum, erromatar garaian kokatutako superproduktzio bat delako, eta spaguetti, spaguetti westerren kutsu baldarra duelako).

Baina, zinemaz eta publizitateaz ari naizenez, badago txanponaren beste aldea, publizitatea filmeen barruan. Pelikula askotan argi eta garbi (lehen planoan) agertzen dira produktuen markak: autoak, garagardo botilak... Eta honen beste adibide nabarmen bat Robert Zemeckisen azkenengo lanean dugu: *Náufrago* filma ikusi duzuenok konturatuko zineten oso ondo eta tre-bezia handiz kontatutako filma izateaz gain, mezulari-zerbitzu enpresa baten bi orduko iragarki bat dela.<

barruan



Luis Miguel Saenz

ELAko arduraduna

«Lantegietako ugazabek eta langileok gizarte eredu ezberdina nahi dugu»

6.



M. Angeles Padilla

HHIko irakaslia

«Txiki-txikittatik eduki dot argi maistra izan nahi nebala; uste dot bokaziñua daukatela»

17.



Roberto Izagirre

Bergarako amodio gutun onena

«Nik idatzitako gutunean Ainhoak dioen gauza asko nik ere maite ditut»

25.

hi, gazte!



BEKAK

Doktorego aurrekoak. Teknologia eta Zientzietako Ministerioa. 1998. urte ondorengo lizentziadun, ingeniari edo arkitektoak. Epea: otsailak 21.

JARDUERAK

Itsasoa. Aula del Mar elkarteak. Donostiako Aquariumean itsasoaren gaineko argazki erakusketa. Epea: otsailak 18.

Argazkiak. Elgoibarko Udala. Kultura etxea. Liburuak izeneko argazki erakusketa. Otsailaren Setik 24a arte.

IKASTAROAK

Hezkide. Hezkide Eskola. Laguntza-harremanaren gaineko ikastaroa. Orduetgia: egubakoitzetan, 16:00etatik 20:00etara, eta zapatuetan, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, maiatzaren 4, 5, 11 eta 12an. Matrikula: urtarrilaren 8tik apirilaren 10a arte.

SARIAK

Joaquin Elosegui. Gipuzkoako Foru Aldundia. 2000-2001eko Joaquin Elosegui sari juridikoa. Lanak argitaragabeak izango dira, eta euskaraz nahiz gaztelaniaz idatziak izan daitezke. Epea: urriak 1.

Enpresa. Oarsoaldearen garapen agentzia. Oarsoaldeko enpresa-ideien euskal enpresa berrien III. lehiaketa. Epea: otsailak 19.

Amodiozko gutunen lehiaketa. Errenteriako gazteen lokala. 20 urte baino gutxiagoko gazteak. Epea: otsailak 12.

LAN ESKAINTZAK

Debagoiena. Debagoieneko Mankomunitatea. Eskola ziurtagiria. Ingurumeneko Kargatzaierako bi lanposturen oposizio-lehiaketa, %41,58 egunean. Epea: otsailak 15.

Kantabria. Torrelavegako Udala. Eskola graduatua edo baliokidea. Lehen mailako musikaria (espezialitate: baxua). Epea: otsailak 14.

KARNETAK

Nazioarteko Aterpekeide, Ikaste (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatorz. Gazte Informazio Gunera.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak. Telefonoa: 943 77 91 57. E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00. Larunbata: 09:30-13:30.

OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunera igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Barrua bia da...

Balorea behar da... gauza desatsegin bat egiteko.

– *Barrua bia da mataderuan lan eitteko.*

– *Andria ildda aldamenian, da bera lo trunkil.*

Barrua bia da ortarako.



hau giroa!

San Juan auzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre

	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
Otsailak 1, eguena	10 °C	7 °C	2,8 l/m ²
Otsailak 2, eguakitz	16 °C	3 °C	- l/m ²
Otsailak 3, zapatua	14 °C	4 °C	- l/m ²
Otsailak 4, domeka	16 °C	3 °C	- l/m ²
Otsailak 5, astelehena	16 °C	7 °C	- l/m ²
Otsailak 6, martitzena	17 °C	15 °C	- l/m ²
Otsailak 7, eguaztena	16 °C	13 °C	0,2 l/m ²

mezak

Santa Marina

Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:30.

San Pedro

Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.

Osintxu

Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.

Elosu

Domekak: 10:00.

Ubera

Domekak: 10:30.

San Juan

Domekak: 11:00.

Basalgo

Domekak: 13:00.

San Prudentzio

Domekak: 10:30.

URTE-MEZAK

Santa Marina

Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

San Pedro

Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

urbanoa

San Lorenzo/San Juandik irteerak

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak

07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

kontuan hartu...

FARMAZIAK

EGUAKITZA 9:
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63
ZAPATUA 10:
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15
DOMEKA 11:
MOZOS. San Pedro 4. 943 76 12 15
ASTELEHENA 12:
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
MARTITZENA 13:
PUY. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
EGUAZTENA 14:
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
EGUENA 15:
ESTELLA. Matxiategi 5. 943 76 19 63

OGIA

DOMEKA 11. Ogizun

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIAK
Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Bergarako udaltzaingoa 943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 76 53 40
Osasun Etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaleak 943 76 16 24
Alkoholiko anonimoak 943 76 51 06
GARRAIOAK
Taxiak 943 76 19 50

UDALA

Bergarako udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultur Etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kirolegia 943 76 56 41
Mizpirualde Egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Jubilatuena Etxea. Bergara 943 76 21 40
Antzuolako jubilatuena elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK 943 76 05 18
Udal euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notarieta 943 76 10 73

zorionak!



Andoni Santamarina
10ean 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Jone Alberdi
9an urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Asier Maure
12an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Barkatu.



Xabier Urbina
14an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak; batez ere,
Jone.



Alitxu Brunet
12an 20 urte.
Urte askotarako!
Amona eta aitona.



Ane Agiriano
15ean 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Mercedes Hernando eta Luis Carlos Ruiz
14an zilarrezko etzeiak. Urte askotarako!
Arantzazu.



Aritz Oiartzabal
13an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Nora.



Nora Casquero
15ean 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Aritz.



Miren Ignacio
9an 4 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Naiara.



Maria Josefa Ormazabal
13an 58 urte. Urte askotarako!
Familia-koak eta Nerea.



Jose Mari Larrañaga
10ean 60 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Kontxita Agirrezabal
11n 77 urte. Urte askotarako!
Etxekoak, Iker eta Aitziber.



Usue Sotil
12an 14 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



Izar Odriozola
9an 2 urte.
Urte askotarako,
sorgintxo!
Etxekoak.



Aitzol Lenisoro
15ean 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Maite Arantzabal
10ean 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Idoia Alonso
13an 37 urte.
Urte askotarako!
Paz zure laguna.



Mikel Mengual
9an 6 urte.
Urte askotarako!
Familia-koak.



Beñat Rezusta
13an 8 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Aritz



Olatz Urrutia
10ean 7 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Xabier.



Asier Perez
10ean 3. Zorionak!
Gurasoak, Judith eta Susana, amama, tia Amaia eta etxekoak.



Ander Orbegozi
15ean 8 urte.
Urte askotarako
mimoxito!
Etxekoak.

jardunen agenda



- **Bergara ezagutzen lehiaketa:** Gaur, hilak 9, bigarren jardunaldia: 'Txapuzeruak'-'3.DBH'. Otsailaren 16an, '1.Batxiler-go'-'Petu-Petuan'. Eguakitzero, 19:30ean, Kartzelan.
- **Kartzelako aisialdia:** Bihar, hilak 10, Graffiti tailerra egongo da. Domekan, berriz, Agirre auzora eta Elurrera irteera egingo dugu: ingurua bisitatu, Agarre garaia ikusi...
- **Kultur Errota:** Domekan, Mikelerrazkin-HF taldea Pol-Polen, 19:00etatik aurrera.
- **Amodiozko gutunen sari banaketa:** Otsailaren 14an, eguaztena, 19:00etan, sari banaketa Kartzela Zaharrean.

*Hurrengo alean
otsailaren 16tik
otsailaren 22ra
bitartekoan zorion agurrak
argitaratuko ditugu.*

Sukaldeko altzarien eta horma-armairuen fabrika



- Lantegiko prezioak
- Erakusleku handia: 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Nobedade denak

Kataide poligonoa, 6. pabilioia.
ARRASATE. 943 71 25 08

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

CAMACHO

Drogeria Usaindegia

Bidekurutzeta 24 BERGARA
☎ 943 76 13 35

ETXEPARE-BILINTX



LIBURUGENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA

Gipuzkoako metal arloak Konbenioaren aldeko hiru greba egun egin ditu. Bergaran erantzun oso zabala izan dute. Luis Miguel Saenzekin hitz egin dugu Konbenioaren inguruan. Izan ere, ELA da sindikatu nagusia metal arloan.

G. Zein dira zuen Konbenioaren ardatz nagusiak?

E. Konbenio batek ardatz asko izaten ditu, baina geureak lau nagusi dituela esango nuke. Hala ere, eta zentratzeko, hau enpleguren konbenioa dela esango dut. Konbenio honetara nola iritsi gara? Gaur egungo egoera ekonomikoa ona dela ikusi dugu, instituzioek ere disimulatu ezingo dutena. Hori horrela, enpleguren arloan neurriak hartzeko momentua dela ikusi dugu.

Aurreko hariari eutsiz, lau ardatz nagusi ditu konbenio horrek. Alde batetik soldatak. Urteetan gauza batengatik edo besteagatik %5 galdu dira. Guk soldaten errekupeazioa eskatzen dugu. Eta ez bakarrik langile fijoen kasuan; behin-behinekoen kasuan ere, orain baita unea soldatetan jauzia emateko.


Bigarrena, lan ordu murrizketa eta ordu estren kontrola da. Hirugarren ardatza segurtasuna da. Oso kezkatuta gaude prekarietatea dela eta gertatzen diren istripu kopuruarekin. Segurtasuna bermatzea nahi dugu. Eta laugarrena da, konbenio bidez kontrolatu ahal izatea kontratazioak. Gaur egun mota guztietako kontratuak daude gure arloan, baita ilegalak ere. Lau horiek dira ardatzak.

G. ELA, LAB eta ESK ados zaudete lauretan?

E. Gutxi gorabehera batzuekin, baina ados gaude.

LUIS MIGUEL SAENZ
ELA sindikatuko arduraduna

«Ugazabek eta langileok gizarte eredu ezberdina nahi dugu»



Luis Miguel Saenz Debagoieneko metal arloko arduraduna da.

G. Patronalaren jarrera zein da?

E. Hau, dudarik gabe, jauzi kualitatiboa da. Orain egiten ari garena, gizartearen eskaeretara jaitea da.

Hala ere, enpresarioak ez. Tradizioari eusten dio eta lehenagoko erdipurdizko denboretako jarduerarekin dihardu.

Horrek eraman gaitu

«Otsailaren 9ko grebaren ostean ez bagenu ezer lortuko handiagoetara joko genuke inongo zalantzarik gabe»

grebara. Adegik, nahiz eta gaur egungo egoera ekonomikoa ona izan, ez du oparotasunean langilea kontuan izango; aurrera begira gerta litekeenerako gordezen dute. Bi hitzetan esateko, ez du gure erreflexioa konpartitzen.

Gainera, gure eskaerak ez dira eurendako gauza berria. Esaterako, duela hiru edo lau urte hasita ginen ordu estren murrizketarena azertzen.

Zoritxarrez, datu eta konfluentzia ekonomikoaz ari garenean, Europara begiratzen dugu, baina lan ordu ez ari garenean hegoaldera.

Patronala eta sindikatuko diskurtso ezberdinean gaude. Adegik nahi duena da soldataren igoeran, esaterako, KPIa igotzea. Baina hori igotzea lehengo urtean bezala irabaztea da, ez besterik. Eta antzera lehenago aipatu ditudan lau ardatzetan. Horregatik esan dut diskurtso ezberdina dugula.

G. Horregatik ekin diozue grebari.

E. Hori da. Hala ere, lehen esan bezala, hau ez da bat batean etorri den gauza bat, gure lau ardatzen inguruan aspalditik dihardugu patronalarekin, baina ez digute jaramonik egin eta greba egitea erabaki dugu. Nagusiek, eta guk, langileok, gizarte eredu ezberdina nahi dugu. Eurena tradizionala da, lehenagokoa. Euren txinok dihardute eta guk euskaraz.

G. Greba egunek erantzun ona izan dute. Aurrera begira zein asmo dituzue?

E. Gure ildoak jarraituko dugula argi daukagu. Negoziatzea beti dago, baina gure diskurtsoari eutsiz. Otsailaren 9ko grebaren ostean ez bagenu ezer lortuko, handiagoetara joko genuke, inongo zalantzarik gabe.



RENAULT

AUKERA EZIN HOBEA



MEGANE EXPRESSION 1.6 16V 110 CV

Aire girotua, ABS
Gidariaren, bidaiariaren eta
alboetako aire-poltsak
Pintura metalizatua
SAT irratia

2.195.000 pezeta*

13.192,22 euro*

5 AUTO AUKERAN



MEGANE COUPE RXI 1.6 16V 110 CV

Aire girotua, ABS
Gidariaren, bidaiariaren eta
alboetako aire-poltsak
Aluminiozko hagnak
Pintura metalizatua
SAT irratia

Aleroa
2.190.000 pezeta*

13.162,17 euro*

5 AUTO AUKERAN



SCENIC RT 1.9 DCI 105 CV

ABS, 4 aire-poltsa
Lagunduriko direkzioa
Itxigailu zentralizatua
Kristal-jasogailu elektrikoa
Pintura metalizatua
SAT irratia

2.540.000 pezeta*

15.265,71 euro*

6 AUTO AUKERAN

Orain, estra guztiak
seriekoak dira
**Bilatu zure
izarra**



CLIO RT 1.2 3 ate

Gidariaren eta bidaiariaren
aire-poltsak

Lagunduriko direkzioa
Itxigailu zentralizatua
Kristal-jasogailu elektrikoa

1.350.000 pezeta*

8.113,66 euro*

7 AUTO AUKERAN



LAGUNA RXE 1.9 DCI 110 CV

Klimatizagailua, ABS
Gidariaren, bidaiariaren eta alboetako
aire-poltsak
Aluminiozko hagnak
Pintura metalizatua
CD kargagailua

Narruzko eserlekuak
3.225.000 pezeta*

19.382,64 euro*

5 AUTO AUKERAN



SCENIC RX4 2.0 16V 140 CV

Klimatizagailua, ABS
Trakzioa lau gurpiletan
Gidariaren, bidaiariaren eta
alboetako aire-poltsak
Aluminiozko hagnak
Pintura metalizatua
CD kargagailua

3.325.000 pezeta*

19.983,65 euro*

4 AUTO AUKERAN

*Prever plana barne.
Modeloak eta iragarritako bertsioak ezberdinak izan daitezke.

MECA

Erakusketa eta tailerra: Amillaga, 5. BERGARA. Tel.: 943 76 40 68

Erakusketa eta tailerra: San Andres auzoa. ARRASATE. Tel.: 943 71 24 72

Zuhaitz Asteak ikasleendako hitzaldi sortarekin ekingo dio astelehenean

Udaleko Ingurumen batzordeak hilaren 12tik 17ra arte Zuhaitz Astea antolatu du. Ekitaldi sortaren barruan, hilaren 17an, zuhaitz erakusketa egingo dute San Martin plazan.



laz egindako zuhaitz azokara jende ugari hurbildu zen.

Azken urteetako ildoari jarraituz, Zuhaitz Astea antolatu du Udaleko Ingurumen batzordeak. Datorren astelehenean, hilak 12 hasiko da, eta hilaren 17ra arte luzatuko da. Astelehenetik egubakoitzera, herriko ikastetxeetan hainbat hitzaldi egingo dira. Hitzaldiak ingurumen heziketan diharduen Kaskabeltz taldeak eskainiko ditu, eta 6. maila eta DBHko lehen zikloko ikasleei zuzenduta egingo dira.

Mendia Bizirik talde ekologistak ere parte hartuko du Zuhaitz Astea: ikasle guztiei zuhaitz bana emango die nahi duten edo ahal duten tokian landatzeko.

AZOKA ETA LANDAKETA

Hala eta guztiz ere, Zuhaitz astearen egunik oparoena datorren zapatua izango da, hilaren 17a. Izan ere, baso lanerako tresneriaren era-

kusketa eta salmenta egongo da batetik, eta, bestetik, zuhaitzen ezaugarrien inguruko erakusketa bigarren urtez. Biak San Martin plazan izango dira goizeko 9:30etik aurrera.

Bestalde, azoka parean, goizeko 10etatik aurrera, ibilbide gidatuak egingo dituzte. Kaskabeltz taldeak egingo ditu, eta herriko hainbat gunetan landatuta dauden zuhaitzak ezagutzeko aukera egongo da.

Azokarekin amaitzeko, ehun gaztainondo landutako dituzte, batzuk San Martzialen eta beste batzuk Pol-Poleko iturriaren inguruan. Udaleko Ingurumen batzordeak herritar guztiei landaketan parte hartzeko gonbita egin die.

Mikel Askasibar presoaren aldeko ekitaldiak asteburuan

Mikel Askasibar "Aska" kartzelan dagoela 10 urte bete dira otsailean. Zarautzen atxilotu zuten, eta 30 urteko kartzela zigorra egotzi zioten. Ordutik Alcala Meco, Valdemoro eta Herrera de la Manchako espe-

txeetan egon da. Gaur egun ere, hantxe dago.

Bergarako Amnistiaren Aldeko Komiteak eta bere lagunek hainbat ekitaldi antolatu dituzte haren omenez. Gaur, egubakoitza, 19:30ean manifestazioa ir-

tengo da San Martin plaza-tik; gero, 20:00etan, omenaldia egingo diote. 22:00etan pilota partidua egingo da, eta zapatuan, gaztetxean kontzertua 23:00etan. Bi talde arituko dira: Pepi eta Gabi eta talde sorpresa.



Mikel Askasibar.

Mujika
goxologia

Berezitasunak:
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 **BERGARA** 943 76 10 34

IBARGYREN PENTSVAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak

San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53

San Pedroko kanpaien hotsa araututakoaren barruan dago

San Pedro parrokiako kanpaien hotsa legeak dioenaren barruan dago. Horixe da, behintzat, joan den hilaren 25ean egindako neurketaren ostean udalak hitzez jaso duen erantzuna, oraindik ez dute-eta azterketaren idatzi formalik jaso.

Kanpaien hotsaren neurketa egin dute Artekaleko hainbat bizilagunek udalean aurkeztutako salaketaren ondorioz. Hamalau bizilagunek, hain zuzen ere.

Gaueko 10etan egin zen neurketa eta hotsa 40 dezibeliokoa da. Lege diaren arabera, goizeko 8etatik gaueko 10etara 40 dezibeliokoa da gehiengoa. Ondorioz, San Pedroko kanpaien hotsa



40 dezibelioko hotsa dute kanpaiak, araudiak dioena errespetatuz. ARTXIBOA

tsa araututakoaren barruan dago. Gaueko 10etatik goizeko 8etara, aldiz, 30 dezibeliokoa izan behar du hotsak. Hala ere, kanpaiak ez

dute doinurik ordu tarte horretan. Horrekin, udalak ez du neuririk hartu behar izango San Pedroko kanpaien hotsaren kasuan.

Seminarioko auditoriuma, 500 lagunendako

Aurrez ikusi denaren arabera, 500 lagunendako tokia izango du eta 700 edo 800 milioiko aurrekontua, Victoriano Gallastegi alkatearen arabera. Hala ere, proiektua egin barik dago oraindik, eta horrek emango ditu kopuru zehatzak eta baita auditoriumaren antolamendua ere. Proiektua Iñaki Aspiazua arkitektoari esleitu zitzaion urtarrilaren 29an egindako ohiko osoko bilkuran.

Beheko Kaleko lanak esleituta Angiozarren

Angiozarko Beheko Kaleko urbanizazio lanen bigarren aldia Mitxaiak SL enpresari esleitu dio udalak 13.828.909 pezetan.

Gasa, argia, ura eta argia, telefonoa eta telebistako hariak lur azpitik sartuko dituzte. Horretarako, kaleko lurra jaso eta sei hodi erabiliko dira. Lan hauen helburua da kable horiek guztiak fatxadetatik kentzea. Behin hodiak lur azpian sartuta, kalea bera konponduko da, egoera kaskarrean dago eta.

Metalak erabateko greba

ELA, LAB eta ESK sindikatuek egunerako deituta zuten grebak erabateko erantzuna jaso zuen Bergaran, joan den hilaren 2an gertatu bezala. Greba egunaren barruan, Debagoienean metal arloan diharduten langileek manifestazioa egin zuten 12:00etan Bergaran: ehunka lagun elkartziren. Egubakoitzerako ere greba deituta zegoen.



Larkano
KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17. BERGARA.
Tf. 943 76 25 03



GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialak

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 666 517 295

Berrigara

439 zenbakia.
2001eko otsailaren 9a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Bergara.
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi, Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetzak: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketak: Sergio Azkarate, Gari Bragado.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate, M. Angel Elkoroberebizar, Alex Labaien, Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Oihan Vega, Usoa Mendikute, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre, Antxon Agirre Sorondo, Juan Martin Elexpuru, Gorka Ugarte.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Berrigara.

Tirada: 5.400 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntzaz:



Bergarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

atrebentzia ezpada

Zinera juateko ohiturarik badaukazu?

Bergaran ala kanpoko herrixetako zinetara juaten zara?



Laura Gallego

Batzuetan juaten naiz. Hemen, Novedadesera. Ez daukat kanpora juateko ohiturarik.



Miren Retolaza

Gustatzen jat zinera juatia, nahiz eta orain ez naizen gehixegi juaten. Juatekotan Novedadesera juaten naiz.



Yeray Rodriguez

Ez naiz zinera juaten, oso garestixa da-eta.



Olatz Esnaola

Batzuetan juaten naiz. Baiña beti Bergarako zinera, behin ere ez kanpora.



Lierni Domenech

Gustatzen jat zinera juatia, baiña ez naiz askotan juaten, oso garestixa da-eta. Baiña juaten naizenian Bergarakora juaten naiz.



E. Saez de Jauregi

Ez daukat zinera juateko ohiturarik. Baiña juaten naizenian Bilbora edo merkatal zentruetako zinera juaten naiz.

tira biraka alex ugalde



adituen esanetan

Berotasun segurua

Gaur egun esan daiteke ez dagoela kalentadore txarrik. Segurtasun handikoak dira merkaturan daudenak, eta gasari eta kalentadoreei dagozkien lege eta arauak ere gero eta zorrotzagoak dira. Horregatik, hainbat neurri hartuz gero, ez dago istripu arrisku handirik.

Ia edozein etxetako sukaldean egoten da kanpai edo ke-erazgailu bat eta kalentadore bat. Eta horrekin kontu handia izan behar dugu. Lehen, kalentadore guztiak atmosferikoak ziren; hau da, bota beharreko ke eta gasak euren kabuz botatzen dituztenetakoak. Hartu ere, euren kabuz hartzen duten airea bakarrik iristen zaie. Horregatik, kanpaia eta kalentadorea elkarrengandik hurbil badaude, neurriak hartzea gomendatzen dugu. Izan ere, kanpaiak iondar handia baldin badauka, oxigeno asko xurgatzen du eta kalentadorea oxigenorik gabe utz dezake; hori arriskutsua izan daiteke. Era honetako kalentadorea duenak konmutadore bat jarri beharko luke, bata martxan dagoenean, bestea itzalita egon dadin.

Beste alderdi garrantzitsu bat, aireztatzearena da. Kalentadorea dagoen tokiak ondo aireztatua egon behar du, atmosferikoen kasuan bereziki.

Gaur egun askotan jartzen dituzte kalentadore estankoak. Horiek motor txiki bat dute, bai



JESUS MARI SAN MARTIN

Teknikoa

"Sukaldeko kanpaiak indar handia badauka, oxigenorik gabe utz dezake berogailua, eta hori oso arriskutsua da"

Bestalde, urtero errebisioa egitea komeni da. Enpresa askok eskaintzen dituzte urtero kontratu egokiak errebisioa egiteko. Gasarena, berriz, lau urte-tik behin egin behar izaten da.



Berogailu sistemaren errebisioa urtero egitea komeni da.

ke eta gasak botatzeko, baita airea hartzeko ere. Horregatik, ez dira hain arriskutsuak, ez dago eta oxigenorik gabe geratzeko arriskurik.

Dena dela, gas usaia hartuz gero, gasak ihes egin duela susmatuz gero, ate eta leiho guztiak ireki behar dira lehenbailehen, eta denbora luzez horrelaxe utzi. Gainera, ez da inola ere argirik piztu behar, ezta itzali ere, edozein txinparta txiki nahikoa izan daiteke eta eztanda bat sortarazteko. Elektra-tresnak ere ez dira erabili behar.

kaleen izenak



1998an onartu zen izen hau erabiltzea.

Sanchez Toca kalea

Kale bati Sanchez Toca izena jartzea behin baino gehiagotan proposatu dute. Guk dakigunez behintzat, 1932ko apirilaren 7an egindako batzarrean gaia mahai gainean gelditu zen eta ez zuen aurrera egin. Proposamena Bidebarriri Sanchez Toca izena jartzea zen. Bigarren aldirian berriz, 1998ko maiatzaren 8an egindako osoko bilkuran, Sanchez Toca izena onartu zuten kale berri batendako. Goiko estazioaren azpian, Moiuia aldapa zena, gaur egun Moiuia kalea da aldatatik ezkerretara, eta eskumatara Sanchez Toca kalea da.

Mediku ospetsu hau Bergaran jaio zen 1804ko urtarrilaren 5ean. Hurrengo egunean San Pedro elizan bataiatu zuten. Familia hau Bidekurutzeta kalean bizi zen, gaur egun Banco Vizcaya dagoen etxean. Bere aita, Andres Sanchez de Toca, Santanderren jaiotakoa zen eta Bergaran botikaria zen; ama, berriz, Maria Gabriela Saenz de Lobera y Olabarria, Bergarakoa zen. Medikuntza ikasketak Madrilan egin zituen. Ospe handia lortu zuen kirurgia arloan. Badi-rudi Prim jeneralak, Gobernuko lehen-dakari zenean, atentatu bat eduki zuten "Que venga Sanchez Toca" esan zuela. Primek Sanchez Tocari deitzeko eskatu zuen, orduan zegoen mediku onenatariko bat zelako. Isabel II.a erreginaren mediku ere izan zen eta hori dela medio, Tocako Markes titulua eman zion erreginak.

Madrilen hil zen 1880ko uztailaren 4an eta, bere nahia zen bezala, Bergarako kanposantuan lurperatu zuten.

Testua: Arantzazu Oregi, Udal artxibozaina.

1956ko kintoak

Lagun koadrila ederra elkartu zen joan zen **urtarrilaren 27an**. 1956an jaiotakoek kintada afaria izan zuten Txuringo jatetxean. Afaldu ostean honako argazki hau atera zuten, bitxia benetan. Gizonezko guztiak bizkarrara ematen; datorren urtean ere halaxe aterako ei dute argazkia, zenbat ile galdu duten ikusteko. Umorea, behintzat, ez zitzaien, ez, falta izan!



KINU



Santa Ageda eskean

O hiturari jarraituz, domekan, Santa Ageda bezperan, asko izan ziren kalera irten ziren taldeak. **Aranzadi** ikastolakoak, esaterako, El Salvadorera bidaltzeko batu zuten dirua. **San Joxepe** elkarteak, berriz, astelehenean atera ziren. Udaltxeko balkoipean harrapatu genituen guk, alkateari kantuan eta diru eskean. **Angiozarko koadrila** bat ere irten zen kantura, Eskola Txikien alde, eta diru mordoxka batu ei zuten; koadrilak eskerrak eman nahi dizkie angiozartar guztiei.



Gaztetxoak Bergara ezagutzen

Joan zen eguakitzean hasi zen Jardunek urtero antolatzen duen **'Bergara ezagutzen'** lehiaketa. «Perretxikuak jardunian» eta «Hik Galdeu» taldeak aritu ziren elkarren aurka lehen saio horretan; Mariaren Lagundia ikastolakoak lehenak, eta Aranzadikoak bigarrenak. «Perretxikuak jardunian» taldeak 223 puntu lortu zituen; «Hik Galdeu»-k, berriz, 236. Gaur, eguakitza, 19:30ean jokatu dute **bigarren saioa** «Txapuzeruak» eta «3. DBH» taldeekin. Kartzela Zaharreko ateak zabalik dituzue guztiok, lehiakideak **animatzera joateko**.

ezagut ezazu aranzadi ikastola!



Otsailaren 10ean

San Martin plazan eta Poligonoan 16:30-18:30

Haur hezkuntzako gelak ikusi ahal izango dituzue!



**matrikulazio
epea zabalik**



**ARANZADI
IKASTOLA**



**Otsailaren 5etik
16ra arte**

Goizez: 08:30-13:00
Arratsaldez: 15:00-18:00


San Martin Plaza, 4
Telefona: 943 76 90 71
Faxa: 943 76 91 77
bergara@ikastola.net



SAN MARTIN
 HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA (HH-LH)
 Boni Laskurain 25. Tf. 943 76 21 47
 Ordutegia: 09:00etatik 13:00era eta 15:00etatik 17:00etara

SAN MARTIN - P

B e r g a r a k o i a



- Integratzailea
- Euskalduna
- Anitza
- Doakoa

2 urtetik 16 urtera

2001-2002 ikasturterako matrikulazio epea otsailaren 5etik 16ra

IPINTZA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH)

Boni Laskurain 17-19. Tf. 943 76 31 42 / 20 82

Ordutegia: 09:00etatik 13:00era eta 15:00etatik 17:00etara

OHARRA

Batxilergo eta zikloetarako matrikula beranduago izango da.
Informatuko zaituztegu garaiz.

-PINTZA - M. ALTUNA

a s t e t x e p u b l i k o a k



Eskola Kontseiluko gurasoak

Konfiantzazko hezkuntza

**San Martin ikastetxeko gurasook
zuen seme-alabak bertan matrikulatzera
animatzen zaituztegu.**

**Sinisten dugulako eskola integratzailea, anitza, solidarioa eta
partaidetza demokratikoa bermatzen duena dela.
Esperientziagatik. Konfiantzaz.**

**MATRIKULA EPEA ZABALIK
OTSAILAREN 16ra ARTE**



SAN MARTIN AGIRRE

herri ikastetxea

Boni Laskurain 25
Telefona: 943 76 21 47

Maria Angelesek sei urte daroia Helduen Heziketa Iraunkorreko eskolan. Irakasle eta Historia ikasketak egin zittuan. Maria Angelesek 36 urte dauzka, ezkontuta dago eta bi seme-alaba dauzka, Miren eta Joseba bikixak.

Maria Angeles Padilla

Helduak ala umiak dira ikasle hobiak?

Helduak; umiekin be ibillitakua naiz, eta egixa esan, helduak nahixago.

Ze adinetako jendia daukazu eskolan?

Gaztienak 30 urte dauzka, eta nagusixenak, ostera, 68.

Etxeko lanak formal egitten dittue?

Ez dotset etxerako lanik emoten.

Helduendako be matematikia da ikasgairik nekezena?

Danetik dago; batzuei asko gustatzen jakue, eta beste batzuei, berriz, bapez.

Zure lanian zer da gehixen gustatzen jatzuna?

Ikasle gehixenak emakumiak dira, eta oso harreman ona daukagu; irakaslia izatiaz aparte, konfesoría be banaiz.

Eta gutxien?

Ez jat bape gustatzen ikasleie zerbait gaizki egin dabela esatia.

Denpora librian zer egittia gustatzen jatzu?

Irakurtzia.

Liburu bat?

El médico, Noah Gordonena.

Kirol bat?

Igeriketia. Orain, ez naiz asko juten, baiña asko gustatzen jat.

Film bat?

Uff!, ja ez naiz zinera juten.

Telebistako saio bat?

Sorginen laratza; lehiaketak be asko gustatzen jat.

Aurkezle bat?

Xabier Euzkitze eta Andoni Aizpuru.

Txikittan zer izatia nahi ziñuan?

Maistra; txiki-txikittatik eduki dot hori buruan; bokaziñua daukat.

Astebururako plan ideal bat?

Senarra eta bixok balnearixo batera jutia, eta asteburua lasai-lasai pasatzia.

Bikotiarengan zer da gehixen apreziatzen dozuna?

Biharra daukatenian alboan edukitzia, laguntzeko.

Zeure burua zela definittuko ziñuke?

Oso perfekzionista naiz: ordenadia, puntuala...

Aratuztietarako mozorrorik prestatu dozu?

Ez; ja ez naiz mozorrotzen; orain, nahikua daukat umiak mozorrotziarekin.

Injustizia bat?

Adibidez, orain etorkiñekin gertatzen ari dana injustizia haundi bat pentsatzen jat.

Bergaran zer aldatuko ziñuke?

Gauza gutxi; asko gustatzen jat Bergara. Hala be, aparkalekuen arazua konpondu biharra dago.

Amets bat?

Seme-alabak ondo hazi eta hezitzia, eta osasunak lagundu deigula.



BIZKOTIHOAK, ERREILENOAK ETA TOJTOAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R.S.I. 209374 - 55

BERGARA

Gozogintzan aitzindari.

PANADEROKUA

LA TATE XEAI

Asteburuetan bertako babak eta saiheskia

SALBADOR 10 **ELGETA**

Tf. 943 76 82 73

ARRANO

Taberna

Kruz Gallastegi **BERGARA**

Afariak ematen ditugu

"Txanbolintxerokua"

BAR LA UNION

Artekalea 14. Tf. 943 76 20 42

etxalar

kafetegia kruasantegia

Boni Laskurain 4

943 76 50 68

ARDATZA

Brikolaketa

Ateak eta zokaloak

Horma-armairuak

Sarrailak eta heldulekuak

Koadroak markoan ipini

Era guztietako moldurak

Apalak

Kaxoiak

Masterreka, 4-behea

☎ 943 76 18 93

Musika

Hamazazpi urte musika irakasten

Eskola

Musika Eskolara sartu, eta eskaileretan gora egin orduko, piano, biolin eta kantu hotsak entzuten dira. Denetariko doinuak entzun ditu. Enseñanzako eraikin zaharrak. Bergara beti izan da oso herri musikazalea. Ikusi besterik ez dago zenbat talde dagoen: Udal Musika Banda, Orkestra Sinfonikoa, abesbatzak, rock taldeak... Eta ikusi besterik ez dago zenbat ikasle dagoen Bergarako Musika Eskolan: 491. Etorkizunean ere ez da musikaririk faltako Bergaran.



Hamazazpi urte pasatxo dauzka Bergarako Musika Eskolak. 82-83 ikas-turtearekin hasi zuen ibilbidea. Orduan, musika talde ugari zegoen Bergaran, Musika Banda eta Orkestra Sinfonikoa, esaterako. Talde hauen ekimenez sortu zen, hain zuzen ere. Gaur egun, gurasoen, udalaren eta irakasleen elkarre bat da.

Ikasle gazteenek hiru urte dituzte, eta, hortik aurrera, adin guztietako ikasleak daude: 491, guztira. Hala ere, Eli Mendiaraz Musika Eskolako zuzendariak azaldu digunez, "gehienak 7 eta 14 urte bitartekoak dira". Irakasleak, ostera, 21 dira.

HIRU URTEKO MUSIKARIAK

Iazko ikasturtetik hona, hiru urteko umeendako musika eskolak eskaintzen dituzte. Hasieran, bi ume bakarrik hasi

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
☎ 943 76 20 34



BANKINTER

%4,95 etik aurrera lehen 3 urteetan

Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren*

*Irekiera
komisioa:
%0,25.
35 urte
bitartearaino



ziren, baina aurtengo ikasturtean hamabi dira. Umeek musikarekin duten lehen hartu-emana dela kontuan hartuta, horretara egokitutako metodologia jakina jarraitzen dute: Suzuki deritzona, hain zuzen ere. Biolina jotzen ikasten dute umeek. Gurasoekin joaten dira umeok eskolara, eta gurasoek ere ikasten dute biolina jotzen. Pixkanaka-pixkanaka musikara hurbiltzea da eskola hauen helburua.

PIANOA, KLARINETEA, TRIKITIA...

Bost urteko umeak aurre hizkuntza musikala ikasten hasten dira. Zazpi urterekin, ostera, Hizkuntza Musikaleko lehen mailan hasten dira, solfeoa, denok ulertzeko. Bost ikasturteko ikasketak izaten dira Hizkuntza Musikalekoak. Lehen ikasturteko ikasleak musika tresna guztiak ikusiaz joaten dira: astero, tresna bat "ezagutzen" dute. Gero, gustukoak dituzten bi tresna aukeratzeko, eta bigarren kurtsoan horietako bat ikasten hasten dira. Musika Eskolako irakasleek azaldu digutenez, "modaren arabera izaten da; orain, adibidez, klarineta boladan dago". Baina, euren lagunek egiten dutenari ere asko begiratzen ei diote umeek.

Bestalde, Bergaran eta Musika Eskolan banda eta orkestra daudenez, horrek ere eragina izaten du musika tresna aukeratzekoan.

MUSIKA ESKOLAKO TALDEAK

Umeendako oso garrantzitsua da ikasitakoa praktikatzeko. Bakarka ikasitakoa taldean interpretatzea ezberdina da, eta hori ere ikasi beharrekoa da musikari batendako. Musika Eskolako bertako taldeek horretarako aukera eskaintzen diete. Lau talde handi ditu Bergarako Musika Eskolak: Orkestra Sinfonikoa, Akordeoi Orkestra, Gazteen Banda eta Haurren Abesbatza. Musika Eskolako ikasle asko izan dira, baita ere, Udal Musika Bandara, esaterako, jauzi egin



Adin guztietako neska-mutikoak ari dira Bergarako Musika Eskolan

dutenak. Hala ere, Musika Eskolako Eli Mendaraz zuzendariaren esanetan, "gaur egun, geroago eta gehiago kostatzen zaigu gaztetxoek taldeetan jotzea, lehen errazago izaten zen, desiratzen egoten ziren guztiak". Proposamena egin orduko, entseguak noiz, zein ordutan eta zenbatero diren galdetzen ei dute. Izan ere, umeek geroago eta aisialdi gutxiago dute.

ESKOLATIK PLAZARA

Musika Eskolako talde horiek guztiak ez dira eskolako geletan geratzen, ez horixe. Izan ere, musikariak plazazalea behar du izan. Horrela, urtean hainbat kontzertu eskaintzen dituzte, eta ekitaldietan ere esku hartzen dute. Irailean, umeen danborradan parte hartzen du musika bandak; Santa Zuzilia eguna kontzertu batekin ospatzen dute eskolak. Gabonetako kontzertuan ere talde guztiek esku hartzen dute.

Musika Eskolako irakasleen esanetan, umeendako garrantzitsua izaten da kalera ateratzea. Horrek asko animatzen ditu: eskolan ikasitakoa plazara ateratzeak eta erakutsi ahal izateak.<

Txikienak, hiru urteko umeak, Suzuki metodoarekin hasten dira musika ikasten

Garrantzitsua izaten da umeendako kalera ateratzea; asko animatzen ditu

Irala 3
Telefona:
943 76 48 26



IRRINTZI
kafetegia

Ugarrixa merenderoa

Elosuko bidean
BERGARA
943 76 28 92



ESPOLON



School of English

INGELES IKASTARO BERRIAK
gazte eta helduentzat.
Trinkoak.
Maila denak.

Tf eta faxa 943 76 03 53
espolonschool@teletel.es

Bergarak garaipena beharrezkoa du Arenasen kontrako partiduan

Bergarako hirugarren mailako futbol taldeak Arenasen aurka jokatuko du zapatuan, Agorrosinen, 16:15ean. Bergarak etxean jokatu dituen azken lau partidua galdu ditu eta joan zen zapatuan San Pedroren aurka galdu ondoren (4-1), mahoneroek beharrezkoa dute partidua irabaztea.



Bergarak 1-0 galdu zuen joaneko partiduan Arenasen aurka.

Momentuan sailkapeneko 10. tokian dira Juanina Garairen mutilak, 29 punturekin. Azkenaldian gol dezentze jaso ditu Bergarak, eta Sodupe (46 gol), Baskonia (40) eta Lagun Onak (39 gol) taldeen atzetik gol gehien egin dizkioten taldea da: 38. Juanina Garai entrenatzailearen arabera, "badi-rudi taldea erlaxatu egin de-

la lehen itzuliaren ondoren, eta egoera honi buelta eman behar diogu, Agorrosinen jokatuako azken partiduetan nahiko eskas ibili baikara. Zapatuan partidua irabaztera zelairatuko gara".

Arenas taldea seigarren postuan da sailkapenean,

41 punturekin. Bost partidu bakarrik galdu dituzte bizkaitarrek eta azken jardunaldian bigarren postuan den Sestaori irabazi zioten, 1-0eko emaitzarekin. Joaneko partiduan, Arenasen, Bergarak galdu egin zuen 1-0.

BIGARREN ERREGIONALAK IRABAZI

Bestalde, bigarren erregional mailako taldeak 3-4 irabazi zion zapatuan Antzuolari, Estalan jokatuako partiduan. Igoera fasean Bergarak bi partidu irabazi eta beste bat galdu egin du, Pasajesen kontrako, hain zuzen. Domekan, Karlos Lasak entrenatzen duen taldeak Mariñoren aurka jokatu du Ipintzan, 16:00etan. Momentuan bergararrak sailkapeneko laugarren tokian dira, 6 punturekin. Mariño, aldiz, azkena da sailkapenean jokatuako hiru partidua galdu baititu. Lasaren arabera, Bergarak lehen erregionaleria igotzeko aukerak ditu. Domekan Mariñori irabaztekotan, beste urrats bat emango dute euren helburua lortzeko.

Axen Garitano 10. postuan Pirenan

Axen Garitano 10. izan zen zapatuan La Molinan bukatu zen Txakur Leren Pirena proban. Garitanok 14 txakur eraman zituen Pirenara, baina etapa gehienetan zortzi txakurrekin (alaska-noak guztiak) aritu zen. Guztira, 300 kilometro inguru bete dituzte partaideek. Irabazlea, lehen aldiz, emakume bat izan da, Elizabeth Elan norvegiarra. Garitanok, otsailaren 17an eta 18an, Baqueira Bereten Espainiako txapelketan parte hartuko du.



**Sukaldeak.
Horma armairuak.
Neurrira egindako
altzariak.
Ateak eta leihoak.
Arozlanak.**

BERGARA ☎ 943 76 58 86

IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32

Bergarako bost igerilari Euskal Herriko txapelketara

Bergara Igeri Elkarteko Neritzel Albisua, Maite Urzelai, Elisabeth Laskurain, Goiatz Perez eta Maria Gallarraga infantil mailako igerilariak astebukaeran Barakaldon jokatu den Neguko Euskal Herriko txapelketan parte hartuko dute.

Joan zen astebukaeran oso emaitza onak lortu zituzten gure igerilariak Azpeitian izandako Gipuzkoako txapelketan. Goiatz Perezek (200 metro estiloan eta 200 metro bizkar estiloan) eta Neritzel Albisuak (400 m. estiloan) zilarrezko dominak lortu zituzten eta Neritzel bera (200 m. bular estiloan), Elisabeth Laskurain (100 libretan, 200 biz-



Bergara Igeri Elkartean 34 lagun ari dira gaur egun.

KIÑU

kar estiloan eta 200 estiloan) eta Maite Urzelaik (100 m. bizkar estiloan) brontzezko domina eskuratu zuten. Errelebuetan, berriz, 4x100 libre eta 4x100 estilo

probetan hirugarren izan ziren bergararrak. Gaur egun, 34 lagun ari dira taldean, eta Amaia Andueza da entrenatzailea. Egunotan Sorluzen entrenatzen dira.

karteldegia

FUTBOLA:

Bergara-Arenas
Hirugarren maila
Zapatua, 16:15. Agorrosin

Bergara-Pasajes
Ohorezko kadeteak
Zapatua, 18:00. Ipintza

Bergara-Segura
Lehen mailako kadeteak
Domeka, 11:00. Ipintza

Bergara-Mariño
2. erregionala
Domeka, 16:00. Ipintza

ESKUBALOA:
Bergara-Arrasate
Senior mutilak
Domeka, 12:15. Kiroldegia

SASKIBALOA:
Bergara-Askatuak
Kadete mutilak
Zapatua, 12:15. Kiroldegia

Bergara-Intxaurren
Senior mutilak
Zapatua, 16:00. Mariaren Lagundia

PILOTA:
EUSKAL LIGA:
Bergara-San Miguel (jubenilak banaka)
UDABERRIKO TXAPELKETA:
Bergara-San Esteban (2. mailako jub.)
Bergara-Azkoitiako (lehen mailako jubenilak)
Gaur, egubakoitzean, 19:30ean.
Aurretik pilota eskolako partidu bat jokatu da.

Arantza Erlojutegia

*%25eko beherapena
denda ixteko*

Barrenkalea, 4. 943 76 10 04



Labegaraietako futbito txapelketa

EMAITZAK

A MULTZOA

Bar Ugarte-Buya	3-3
Irubide jatetxea-Apa Oxemai	6-1
Bildurbarek-Torrekua	3-4
Bar Canalejas-Eri	9-1
Pagomendi-Amoskibar	3-5
Errotagain-Fac	5-3

B MULTZOA

Aterpe-Cine Bank Irimo	10-2
Amilotx-Bayer	2-2
Pinturas Bergara-Kanpazar	3-0
Etengabe-Aluminios Kresala	0-3

C MULTZOA

Mongatxurra-Ezinleike	0-3
Guadalest-Komando Piperrak	8-2
Artusamak-Latex	19-0
A Ze Flaxa-Patxaran Team	10-2

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

9:30: Bar Ugarte-Apa Oxemai	Agirrebeña
10:30: Vacalouras-Agirrebeña	Bar Ugarte
16:30: Mongatxurra-Latex	Fac
17:30: Irubide-Faci	Amoskibar
18:30: Bildurbarek-Amoskibar	Buya
19:30: Buya-Pagomendi	Bildurbarek

DOMEKAN, BARRUAN

9:30: Komando Piperrak-Txipiron	Alu. Kresala
10:30: Kanpazar-Aluminios Kresala	Txipiron
16:00: Cine Bank Irimo-Ortzi	Torrekua
17:00: Torrekua-Bar Canalejas	Shaktale
18:00: A Ze Flaxa-Shaktale	Canalejas

DOMEKAN, KANPOAN

11:30: Errotagain-Eri	Guadalest
12:30: Guadalest-Ezinleike	Eri

ARGI!

Sailkepenean, behera

Mongatxurra eta Kanpazar Harrobia taldeei partidua galdutzat eman zaie ez aurkezteagatik, eta, horrez gain, hiruna puntu kendu dizkiete sailkepenean. Bestalde, Etengaberi ere gauza bera gertatu zaio jokoan zen partidua jokatzeari lagatzeagatik.

Jokalariei zigorrak

Bar Ugarte taldeko Paco Martinezek eta Buyako Jon Sanchezek bost partiduko zigorra jaso dute. Etengabe taldeko Patxi Francok ere lau partiduko zigorra bete beharko du.

Buya, Torrekua, Artusamak

Buyak Bar Ugarte liderraren kontra berdindu zuen (3-3), Torrekuak Bildurbarek-i irabazi zion (4-3) eta Artusamak 19-0 menderatu zuen Latex taldea.



GORA eta BEHERA



Latex, Bildurbarek, Eri

Latex taldeak gol zaparradarik handiena jaso zuen (19-0) eta Bildurbarek-ek ustekabeen galdu zuen. Azkenik, Eri taldeak ere uste baino erraztasun gehiago eman zion Canalejasi (1-9).

SAILKAPENA

A multzoa

	P	J
1. Bar Ugarte	37	14
2. Errotagain	31	14
3. Pagomendi	26	14
4. Bar Canalejas	25	14
5. Amoskibar	24	14
6. Bildurbarek Opel Lam	22	13
7. Fac	19	13
8. Eri	13	14
9. Buya	11	13
10. Irubide jatetxea	10	13
11. Torrekua	9	14
12. Apa Oxemai	7	14

B multzoa

	P	J
1. Aterpe	34	12
2. Aluminios Kresala	26	12
3. Ortzi	24	10
4. Kanpazar Harrobia	22	12
5. Amilotx	20	12
6. Pinturas Bergara	19	12
7. Bayer	13	12
8. Vacalouras	7	11
9. Eengabe	4	12
10. Cine Bank Irimo	4	12
11. Agirrebeña jatetxea	3	11

C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa	30	12
2. Artusamak	25	11
3. Guadalest	21	11
4. Komando Piperrak	19	10
5. Mongatxurra	18	10
6. Txipiron	13	10
7. Shaktale	13	10
8. Ezinleike	6	10
9. Patxaran Team	4	11
10. Latex	-2	11

Informazio hau babesle hauei esker:



Irizar 2
☎ 943 76 14 95

**JAUJA
KIROLAK**



OGIZUN
koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13

Otsein
Saria

Sailkapen orokorra:

Aritz Arabiourrutia	10 puntu
Koldo Erostarbe	9 puntu
Txonan Gallasteg	7 puntu
Josetxo Lizarralde	6 puntu
Arkaitz Arana	6 puntu

Etoko partidua bakarrik hartzen dira kontuan.



BITTOR GOMEZ
BKEko zuzendaritzakoa

Lehen minutuetan Ber garak gola egiteko hainbat aukera izan zituen zapatuan, San Pedoren aurka, baina ez zuten asmatu. San Vicenteren erremate batek langan jo zuen eta beste bi aukera ere izan genituen beraien lehenbiziko gola heldu aurretik. Hortik aurrera, gauzak aldapan gora jarri ziren guretako, eta San Pedro nagusitu zen zelaian. Lehen zatia 2-0eko emaitzarekin bukatu zen, eta bigarren zatian beste bi gol egin zizkiguten. Markagailua 3-0 zegoela, Errastik gure gola egin zuen. Dena dela, 4-1eko emaitza gehiegizkoa izan zen, nire ustez.

Badirudi taldea bolada txarrean sartu dela, etxeko azken partidua galdu dituelako eta etxetik kanpo ere emaitza positiborik ez duelako lortzen. Hala ere, ez zaio Arenas taldeari beldurrik izan behar. Gure taldeak edozeini irabazteko gaitasuna duela erakutsi du orain arte, eta zapatuan partidua irabazteak indarra emango lieke gure jokalariei etorkizunari begira, lasaia go aritzeko.

GASTON Y DANIELA



Inglesina®



Kruz Gallastegi 3 **BERGARA** ☎ 943 76 07 37

Banatzaile ofiziala

Berritze lanengatik deskontua

50%

aprobetxatu aukera hau!

AGIRRE JANTZIDENDA

943 76 72 67. Bidekurutzeta 18



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

bonofotoa

Bergarako zein auzo da irudian ikusten dena?

galde debalde

1. Zela deitzen da hiru urteko umeek musika ikasi dezaten erabiltzen den metodoa?


- A- Hashimoto
- B- Kawasaki
- C- Suzuki

2. Zeinek irabazi du Bergarako onenari dagokion amodiozko gutunen saria?

- A- Jon Sanchezek
- B- Roberto Izagirrek
- C- Juan Martin Elexpuruk

3. Zein talderen aurka jokatu du zapatuan Bergarako futbol taldeak?

- A- Getxoko Arenas
- B- Sestao
- C- Lemoa



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria **Isabel Aranburu**rentzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Isabeli!

Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:

Bonofotoa: **Askasibar Bolu**

Galde Debalde: **1-A, 2-A, 3-C**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: 2: 3:

Izen-deiturak:

Telefonoa:

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

La Cigala
arroza, kiloa
155 PTA!

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

Roberto Izagirre, Amodiozko gutunen lehiaketan, Bergarako onena

«Nire gutunean Ainhoak esaten dituen gauza asko eta asko nik ere maite ditut»

Roberto Izagirrek bergarar onenaren saria jaso du Amodiozko Gutunen lehiaketan. Beste bi ere jaso izan ditu aurretik lehiaketa berean: akzesita eta bigarren saria. Ainhoa eta Sarrionandia dira aurten saritutakoaren protagonistak.



Amodiozko gutunak eskuz idatzi behar direla uste du; ordenagailuz, ez.

G. Noiz lehenengo saria?

E. Lehenengoak lan handia ematen du, horren ondoren hurrengo urteetakoak ere irabazi behar dira eta. Broma da. Datorrenean datorrela. Saiatu, behintzat, saiatuko naiz, asko gustatzen zait-eta horrelakoak idaztea.

G. Amodiozko gutunak idaztea?

E. Eta bestelakoak ere bai. Baina, amodiozko gutunak asko gustatzen zaizkit,

motzak direlako. Azken baten, bi folio idatzi behar dituzu, eta erraz idazten dira. Gainera, epea egoteak asko laguntzen du, bukatu eta ahaztu egiten zarelako. Epeak egotea oso ondo datorkit.

G. Zein da idatzi duzun gutunaren mamia?

E. Antzina, Sarrionandiak Ainhoa izeneko bati liburur bat idatzi zion. Nire gutuna haren ordaina da: Ainhoak Sarriri egiten dion ordaina. Orain ere, apur bat depre nagoenean 'Ainhoari gutunak' irakurtzen dut. Beste batzuek 'El Principito' irakurtzen duten moduan.

G. Zure gutunean Ainhoak Sarrionandia maite du.

E. Ainhoak Sarrionandiarengan gorputzen duen zerbeit maite du.

G. Zuk ere bai?

E. Bai. Ainhoak esaten dituen gauza asko eta asko nik ere maite ditut.

G. Esaterako?

E. Herria, hizkuntza... uste dut garai bateko belaualdia asko egiten saiatu zela. Arrazoia zuten edo ez, hori norberak ikusiko du. Baina, buru-belarri ahalegindu ziren, eta asko utzi zuten bidean.

G. Amodiozko gutunak idazteko araurik badago?

E. Ba ei daude. Bai, baina nik ez ditut jarraitzen. Unean, barruan sentitzen dudanak laguntzen dit. Edozeinek edozer idatz dezake la uste du.

Mikelerrazkin-HFren kontzertua domekan Pol-Polen

Kultur Errotaren eskutik, Mikelerrazkin-HF taldearen kontzertua egongo da domekan, arratsaldeko 7etan, Pol-Pol tabernan. Mikel Errazkin hondarribitarak, Sorotan Beleko kide oihak, orain urte batzuk sortutako musika proiektua da

Mikelerrazkin-HF. Bi disko ditu kalean. Azkena, 'Beti berandu', Hondarribiko Hirusta Records zigiluarekin kaleratu du. Errazkinekin batera, Nieves Arilla, Urbil Artola eta Aitor Furundarena bezalako musikagileek kolaboratu dute bigarren

lan horretan. Ohikoa den bezala, musikagile askok, hamahiruk, hain zuzen ere.

Errazkin bera da musika, konponketa eta letren egilea. Abestietako hitzek egilearen bizipenak kontatzen dituzte. Baita mende aldaketa edo homosexualitatea-

ren bazterketaren gainekoak ere. Hori guztia, zenbaitetan country kutsua hartzen duen pop akustikoaz lagunduta.

Domekan lehenengo eta bigarren diskoko kantuak entzuteko aukera eskainiko du Mikelerrazkin-HFk.

DENA
100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta 3

LONBIDE
OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5

BERGARA

☎ 943 76 10 57



ARRI

Industri
hornidura

Zubiaurre, 30

Tf. eta faxa: 943 76 19 04.

Sakelakoa: 656 78 64 84.



Gerra ostean, 1939

Aste honetako erretratua Gerra Zibilaren ostean ateratakoa da. Bertan herriko hiru gazte ageri dira, beste hiru lagunekin batera. Orduan 19 bat urte izango zituzten gazteek. Argazkia 1939ko apirilean ateratakoa da, Madrilgo Valdeterres del Jarama herrian, hain zuzen ere. Antza denez, Guadarrama eta Somosierra aldean ibili ziren Gerran argazkikoak, Infanteriako 2. batailoian, 25. errejimenduan. Honako hauek dira erretratuan agertzen direnak: Jesus Urbietta, Martin Beitia, Juan Bautista Uribetxeberria arrasatearra, Goierri aldeko beste lagun bat eta Roman Muguruza. Jarrita agertzen dena, Tolosa aldeko bat omen zen, Roman Muguruzak eman digun informazioaren arabera.

Erretratua: Roman Muguruza.

ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu.

Irizar jauregian gaituztu, zatoz!

Argitapen honen edizioko laguntzaile:



kutxa

*gizarte-ekintza
obra social*

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldeko erreforma,
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59



zumelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Zure gorputzak merezi duelako



Berreskura itzazu
edertasuna
eta harmonia
tratamendu
personalizatuekin

Dei egizu konpromiso barik eta behar beste informazio emango dizugu: **943 76 31 71**

LILURA

Edertze Institutua

Bidekurutzeta 7. BERGARA



- Duromatic eta Fissler lapikoen salmenta, konponketa eta errekanbioak
- Rielak
- Estoreak
- Eta etxerako hainbat tresna




Orain, Gisasolan,
managailuen kopiak
ere egiten ditugu: garajerako,
autoen alarmendako...



GISASOLA

 Erratzu BURDINAKI DENDA

San Pedro 8. Tf.: 943 76 27 70



ADI ADI ADI ADI ADI ADI ADI ADI ADI

MEZUA MEZUA MEZUA MEZUA MEZUA MEZUA MEZUA MEZUA

OKENDO OKENDO OKENDO OKENDO OKENDO OKENDO OKENDO OKENDO

KIROLAK KIROLAK KIROLAK KIROLAK KIROLAK KIROLAK KIROLAK KIROLAK

ESKAINZAK ESKAINZAK ESKAINZAK ESKAINZAK ESKAINZAK ESKAINZAK ESKAINZAK ESKAINZAK

TXANDALAK		TXANDALAK		TXANDALAK		TXANDALAK		TXANDALAK	
3.995	3.995	3.995	3.995	3.995	3.995	3.995	3.995	3.995	3.995
5.995	5.995	5.995	5.995	5.995	5.995	5.995	5.995	5.995	5.995
7.995	7.995	7.995	7.995	7.995	7.995	7.995	7.995	7.995	7.995

PRAKAK		PRAKAK		PRAKAK		PRAKAK		PRAKAK	
495	495	495	495	495	495	495	495	495	495
995	995	995	995	995	995	995	995	995	995
1.995	1.995	1.995	1.995	1.995	1.995	1.995	1.995	1.995	1.995

SUDADERAK		SUDADERAK		SUDADERAK		SUDADERAK		SUDADERAK	
995	995	995	995	995	995	995	995	995	995
1.995	1.995	1.995	1.995	1.995	1.995	1.995	1.995	1.995	1.995
3.995	3.995	3.995	3.995	3.995	3.995	3.995	3.995	3.995	3.995

FORRO POLARRAK		FORRO POLARRAK		FORRO POLARRAK		FORRO POLARRAK		FORRO POLARRAK	
3.995	3.995	3.995	3.995	3.995	3.995	3.995	3.995	3.995	3.995
5.995	5.995	5.995	5.995	5.995	5.995	5.995	5.995	5.995	5.995
9.995	9.995	9.995	9.995	9.995	9.995	9.995	9.995	9.995	9.995

KAZADORAK		KAZADORAK		KAZADORAK		KAZADORAK		KAZADORAK	
3.995	3.995	3.995	3.995	3.995	3.995	3.995	3.995	3.995	3.995
5.995	5.995	5.995	5.995	5.995	5.995	5.995	5.995	5.995	5.995
7.995	7.995	7.995	7.995	7.995	7.995	7.995	7.995	7.995	7.995
9.995	9.995	9.995	9.995	9.995	9.995	9.995	9.995	9.995	9.995

KAMISETAK		KAMISETAK		KAMISETAK		KAMISETAK		KAMISETAK	
495	495	495	495	495	495	495	495	495	495
995	995	995	995	995	995	995	995	995	995
1.995	1.995	1.995	1.995	1.995	1.995	1.995	1.995	1.995	1.995

ZAPATILAK		ZAPATILAK		ZAPATILAK		ZAPATILAK		ZAPATILAK	
1.995	1.995	1.995	1.995	1.995	1.995	1.995	1.995	1.995	1.995
2.995	2.995	2.995	2.995	2.995	2.995	2.995	2.995	2.995	2.995
3.995	3.995	3.995	3.995	3.995	3.995	3.995	3.995	3.995	3.995
4.995	4.995	4.995	4.995	4.995	4.995	4.995	4.995	4.995	4.995
5.995	5.995	5.995	5.995	5.995	5.995	5.995	5.995	5.995	5.995